que las instituciones provinciales habían mandado levar para hacer frente a esa posible amenaza<sup>386</sup>. Esto se concretó en el año 1743, cuando, precisamente cerca de Orio, se avistó una flota británica de cinco navíos de guerra que navegaba sobre la vertical del cabo Machichaco y parecía querer acercarse al puerto de Getaria<sup>387</sup>. Fue el 30 de mayo de 1743 cuando esos navíos ingleses se encontraron sobre la vertical de San Sebastián, respondiendo al fuego de artillería que se les hacía desde su plaza fuerte. Esa misma noche intentaron asaltar con lanchas armadas el puerto de Pasajes —muy cerca de la casa natal del propio Blas de Lezo—, para incendiar los barcos que estaban en él. Las autoridades locales temían que intentasen tomar el castillo de Santa Isabel, que controlaba y dominaba la bocana del puerto, aunque en esos momentos se hallaba sin guarnición. Una crítica situación para la que las autoridades provinciales pedían hombres a todas las villas que formaban su Junta, incluida Andoain, por supuesto, aunque los primeros afectados por la alarma fueron los vecinos de Pasaia, Errenteria, Hondarribia y otras poblaciones más cercanas al punto de peligro, como Lezo<sup>388</sup>. Una amenaza que, después de todo, la corte de Madrid consideraba irrelevante, y así lo manifestaba por medio de carta del propio marqués de la Ensenada, donde opinaba que esa flotilla no tenía capacidad de desembarco y sólo pretendía estorbar los movimientos de los corsarios guipuzcoanos o a la flota de la Compañía de Caracas (en la que, por cierto, estaban empleados un buen número de guipuzcoanos con los que, como dicen esos documentos, no se puede contar para la defensa en tierra) y así manda retirar la alarma a las milicias de cada villa, si bien pedía que estuviesen dispuestas para acudir en cuanto fuera necesario<sup>389</sup>.

Durante la Guerra de los Siete Años, en la que Francia y Gran Bretaña lucharon por el control de las colonias de América del Norte, Caribe y Océano Índico, España intervino únicamente al final, una vez que la muerte de Fernando VI permitió a su beligerante hermano Carlos III subir al trono. Éste decidió reactivar en su plenitud el Pacto de Familia con los Borbones franceses y entrar de lleno en esa contienda<sup>390</sup>.

---

386 A.G.G.-G.A.O., JD IM 3/4/70, lista de las 42 compañías levadas por la Provincia.

387 A.G.G.-G.A.O., JD IM 3/4/ 71, carta de 28 de mayo de 1743. El Ayuntamiento de Getaria, que es quien envía la carta a las instituciones guipuzcoanas, habla de "cinco Nauios grandes de Guerra". Dice que a las cinco de la mañana estaban como a una legua de Getaria, sobre la isla de San Antón, el famoso "ratón". La deriva que llevaban no permitía deducir que fueran a acercarse más, pero se temía que hacía la tarde cambiasen de dirección y tratasen de atacar por sorpresa ese puerto.

388 Consúltase A.G.G.-G.A.O., JD IM 3/4/ 71, cartas de 30 y 31 de mayo de 1743.

389 El marqués vuelve a reiterar la licencia a las milicias guipuzcoanas en octubre de 1743, dejándolas volver a casa desde el primero de noviembre. Consúltase A.G.G.-G.A.O., JD IM 3/4/ 71, cartas de 15 de junio, 10 de agosto y 12 y 20 de octubre de 1743. Sobre la Compañía de Caracas y su impacto en la sociedad guipuzcoana del momento, véase GARATE OJANGUREN, M.: *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1990.

390 Sobre esta Guerra de los Siete Años, véase OGG, D.: *op. cit.*, pp. 173-182, para una visión más general y, más concretamente, para la intervención española, véase RUIGÓMEZ GARCÍA, M. P.: "La Política exterior de Carlos III", en VV. AA.: *La época de la Ilustración. Las Indias y la Política exterior...*, *op. cit.*, pp. 365-372.

sak esanez ontzidi britainiarrak gipuzkoar kortsarioen mugimenduak oztopatzea zuela helburu edo Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren flotarena (zeinean memento horretan gipuzkoar asko enplegaturik zeuden, eta ezin zuten, dokumentazioan jasota dagoen legez, probintziaren defentsan parte hartu); eta, hainbestez, agindu zitzaien hiribilduko miliziei alarma-egoera kentzeko, esanez, hori bai, prest egoteko bertaratzeko, beharrezkoa bazen<sup>389</sup>.

Zazpi urteetako Gerran, zeinean Frantziak eta Britainia Handiak borrokatu zuten Ipar Amerikako, Karibeko eta Indiako Ozeanoko kolonien kontrolarengatik, Espainiak bukaeran bakarrik parte hartu zuen, behin Fernando VI.a hil ondoren, Karlos III.a, zeina beligeranteagoa baitzen, errege bihurtzean. Errege berriak frantses borbondarrekin familiako paktua berrakibatatu, eta gerran sartu zen buru-belarri<sup>390</sup>. 1762an, Andoaini iritsi zitzaion erkidego hori berriro XVIII. mendeko beste guda prototipiko batean sartuta zegoen albiste. Ricardo Wall Gerrako ministroak atseginez hartu zuen agintari bizkaitarrek erregea, estatua eta Nazioaren kreditua zerbitzatzeko jarrera ona gerran, eta adoretu zituen euskal kostaldearen defentsarako (zeina, noski, Andoain ukitzen zuen, alde), eta agindu zuen Kantabriako erregimentua berrezartzeko probintzia horietako boluntarioekin, 1762ko udaberrian Donostiako gotorlekua garnizoi bihurtzeko baldintzetan egon ahal izateko. Andoainen, Gipuzkoako Biltzarretan bozka zuten gainerako hiribilduetan bezala, kontu hori eztabaidatu zen<sup>391</sup>. Horretaz gain, zenbait zaldun ospetsu, hala nola Peñafloidako kondea, eta izen oneko andoaindar batzuk, Francisco Xavier Leizaur kasu, erregimentuko postuak diruz hornitzeko prest azaldu ziren, gipuzkoarren kontingentea osatzeko<sup>392</sup>. Halere, bi hilabete geroago, eskaintza osatzeko gizonak falta ziren, Kantabria erregimentuak behar zituen beste ez baitzegoen oraindik<sup>393</sup>. Horren atzean, halere, itxurazko utzikeria besterik ez zegoen, egoera beste bat ezkututzen baitzen, izan ere, 1762tik, probintziak, haren hiribilduen bitartez, berrogei konpainia mobilizatu zituen (berrogeita hamarna gizon), zenbatu gabe, gainera, itsas portuen babeserako miliziak (britainiarren lehorreratze mehatxu berrien aurka behar zirenak<sup>394</sup>).

389 El 1743ko urrian markesak baieztatzen du gipuzkoar milizien lizentzia, azaroaren hasieran etxera itzultzeko. Konsultatu A.G.G.-G.A.O. JD IM 3/4/ 71, 1743ko ekainaren 15eko, abuztuaren 10eko, eta urriaren 12 eta 20ko eskutitzak. Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainiari buruz eta haren eragina herrialdean, ikus GARATE OJANGUREN, M.: *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1990.

390 Zazpi urteko gerraz, ikus OGG, D.: *op. cit.*, or. 173-182. Ikuspegi orokorrako baterako, ikus RUIGÓMEZ GARCÍA, M. OR.: "La Política exterior de Carlos III", en VV. AA.: *La época de la Ilustración. Las Indias y la Política exterior...*, *op. cit.*, 365-372 orr.

391 Andoaingo Udal Artxiboa, E 2 II 234 H 9, 1762ko otsailaren 9ko gutuna.

392 A.G.G.-G.A.O. JD IM 3/4/72, 1762ko apirilaren 23ko gutuna.

393 ÍDEM, 1762ko uztailaren 12 eta abuztuaren 13ko gutunak.

394 ÍDEM, 1762ko apirilaren 26ko gutuna.

De ese modo, en enero de 1762, Andoain recibió noticias directas de que esa comunidad estaba envuelta en otra de esas guerras prototípicas del siglo XVIII, cuando el ministro de la Guerra, Ricardo Wall, se felicitaba por la buena disposición por parte de las autoridades vizcaínas para servir al rey, al estado “y crédito de la Nación” en esa presente guerra y animaba, sobre todo, a que, para la defensa de la costa vasca en caso necesario (algo que, obviamente, afectaba en cierta medida a Andoain), se restableciese en toda su potencia el regimiento de Cantabria, nutriéndose con voluntarios de esas provincias para que, en la primavera de ese año de 1762, estuviese en condiciones de convertirse en la guarnición de la plaza fuerte de San Sebastián. Un asunto sobre el que Andoain, como las demás villas con voto en las Juntas guipuzcoanas, fue invitada a debatir<sup>391</sup>.

Aparte de esto, algunos caballeros de importancia, entre los que se encontraban el conde de Peñaflores o ilustres apellidos andoaindarras como Francisco Xavier de Leizaur, se presentaron voluntarios para costear de su propio bolsillo las plazas de ese regimiento que se esperaba completar con reclutas guipuzcoanos<sup>392</sup>. Oferta que, sin embargo, más de dos meses después, no se había podido cumplir por no encontrar los reclutas que se buscaba para el regimiento Cantabria<sup>393</sup>. Una impresión de desidia ante esta cuestión hasta cierto punto engañosa, puesto que, desde finales de abril de 1762, la provincia, y sus villas, ya habían movilizado hasta cuarenta compañías de cincuenta hombres cada una —y eso sin contar con las milicias de las villas portuarias— para la defensa de la costa guipuzcoana ante nuevas tentativas de desembarco británicos<sup>394</sup>.

Andoain, tal y como consta en la lista de voluntarios del batallón denominado “de Guipuzcoa”, acabó aportando un número considerable a esas tropas que, de un modo u otro, se alistaban para combatir en la llamada Guerra de los Siete Años. En dicha lista constaban los nombres de Antonio Reyes (que murió en Hondarribia en 11 de septiembre), Bautista Mugica, Marcos Basanta, Martín Lerchundi, Juan Aranburu, Juan de Olano, Juan Seguro, Domingo Echevelz, Martín Eraquil, Antonio Zalaberria y un vecino de la zona del extrarradio de la villa, Antonio Bernardo, que era el único que desertó de ese servicio el 22 de agosto<sup>395</sup>. Meses después, a finales de ese mismo año, en diciembre, la villa de Andoain era informada de que “la Corona de España y la de Francia de una parte, y la de Inglaterra, y Portugal de otra” estaban firmando la paz en París y con ello se declaraba el cese general de hostilidades, deseándose “que desde luego” volvieran “los vasallos de las quatro citadas potencias al antiguo buen trato” que había entre ellas. Pacífica proclama que, naturalmente, se remitía a la villa de Andoain como a

---

391 A.M.A., E, 2, II, 234 H 9, carta de 9 de febrero de 1762.

392 A.G.G.-G.A.O., JD IM 3/4/72, carta de 23 de abril de 1762.

393 ÍDEM, cartas de 12 de julio y 13 de agosto de 1762.

394 ÍDEM, carta de 26 de abril de 1762.

395 A.G.G.-G.A.O., JD IM 3/4/72, lista de voluntarios, sin fechar.

Andoainek, Gipuzkoa izeneko batailoiaren boluntarioen zerrendan ikus daitekeenez, tropa kopuru handi xamarra jarri zuen (modu batean edo bestean) Zazpi Urteko Gerran borrokatzeko. Honako izen hauek irakur daitezke bertan: Antonio Reyes (irailaren 11n hilik Hondarribian), Baupista Mugica, Marcos Basanta, Martin Lerchundi, Juan Aranburu, Juan Olano, Juan Segurola, Domingo Echevelz, Martin Eraquil, Antonio Zalaberria eta hiribilduko aldiriko bat, Antonio Bernardo (abuztuaren 22an desertatu zuena)<sup>395</sup>. Hilabete batzuk geroago, ia urte bukaeran, abenduan, Andoaini jakinarazi zioten Espainiako eta Frantziako koroa, batetik, eta Ingalaterrakoa eta Portugalgoa, bestetik, bakea sinatzen ari zirela Parisen, eta borrokei bukaera jartzen zitzaizela, opatuz potentzia horretako basailu guztientzako garai bateko tratu onak itzul zitezela. Halako aldarrikapen baketsua, noski, Andoainera ez ezik, aldez edo moldez, gerra horretan beren burua sartuta ikusi zuten herri eta populazio-gune guztietara ere bidali zen<sup>396</sup>.

Garai hartako andoaindarren artean bada bat, beharbada, aparteko iruzkin bat merezi duena, Sebastian Leiza, hain zuzen. Andoainen egoera geografiko pribilegiotsua beren alde erabiltzen jakin zuten kontrabandista askoren kasua alde batera utzita, hiribilduko gizaseme honek ondo islatzen du, Historiako liburuen orriak betetzen dituzten gizon handitsuekin batera, horrelako prozesu historikoen sorrera-gertaeretan badagoela pertsonaia andana bat prozesu horietan parte hartzen duena, baina bere papera ez dena bakarrik liderren gutxi gorabehera karismatikoen nola-halako jarraitzaile izatearena, edo pagaburuarena (horrelako kontuetan bizia uzten dutenak) edo kanoi-bazkarena —gizagaixoenen patua dena— ezer irabaztekorik ez eta galtzeko dena daukaten askorena; konkista-espeditio, gerra eta bataila bezalako jazoera historikoetan badago bestelako jenderik ere, izena gutxiago eza-gunekoa, baina estatu-egituretako jasoaldi eta eroraldietan eta inperio handien konkista eta galera uneetan gertakizun harrigarri horien moldaeran parte hartzen duena<sup>397</sup>.

Jose Garmendia Arruebarrenaren ikerketek Sebastian Leiza merkataritza-gune garrantzitsuetako batean kokatu dute garai horretan: Cadizen; eta, itxura guztien arabera, bertan zegoen onura ekonomiko handiak atereaz, hots, gerra-giro nahaspilatu horietako emaitzez profitatzen (Ondorengotza Gerra edo Aliantza Laukoitzarena)<sup>398</sup>. Garmendia Arruebarrenak zehatz-mehatz aztertutako Sebastianen testamentuaren xedapenak eta haren anaia Agustin Leiza Latijeraren

395 ÍDEM, boluntarioen zerrenda, datarik gabe.

396 A.U.A., E, 2, II, 234 H 9, 1762ko abenduaren 14ko eskutitza.

397 Horri buruz ikus GINZBURG, C.: *El queso y los gusanos*, Muchnik,artzelona, 1994, 9-17 orr. Euskal herritarrek inperio-egitura nola erabiltzen duten jakiteko ikus IMIZCOZ, J. M. (zuz.): *Redes familiares y patronazgo. Aproximación al entramado social del País Vasco y Navarra en el Antiguo Régimen (siglos XV-XIX)*, UPV-EHU, Bilbo, 2001. Andoaingo estraperloaz, tabakoarena hain zuzen, hiribilduko kokapen geografikoaren ondorioz ikus APARICIO ROSILLO, S.: "El contrabando de tabaco en Andoain durante los siglos XVIII y XIX", *Leyçaur*, 8, 2004, 93-150 orr.

398 Cádizen eraginaz nazioarteko merkataritza sareetan, ikus CIPOLLA, C. M.: *La odisea de la plata española: conquistadores, piratas y mercaderes*, Crítica,artzelona, 1999. También MARTÍNEZ SHAW, C.-ALFONSO MOLA, M. (dirs.): *España en el comercio marítimo internacional (siglos XVII-XIX): quince estudios*, UNED, Madril, 2009.

todas las demás poblaciones del reino implicadas, de un modo u otro, en dichas hostilidades<sup>396</sup>.

Llegados a este punto del relato histórico de los grandes conflictos del siglo XVIII y cómo afectaron a la comunidad de Andoain, cabe preguntarse por los beneficios obtenidos por esa comunidad a cambio de ese esfuerzo de guerra que acabamos de describir. Dejando de lado el caso de los numerosos contrabandistas que supieron aprovechar bien esas circunstancias y el enclave privilegiado de Andoain, la figura de Sebastián de Leiza, comerciante andoainarra de la época, excelentemente conectado con las redes de comercio mundial que convergen en Cádiz, puede ayudarnos a comprender mejor, desde la llamada "Microhistoria" lo que supuso para Andoain ese cúmulo de acontecimientos históricos jalonados por diversas guerras<sup>397</sup>.

En efecto, las averiguaciones de José Garmendia Arruebarrena sitúan a Sebastián de Leiza en uno de los principales centros comerciales mundiales, la ciudad de Cádiz, y, según todos los indicios, obteniendo una serie de notables beneficios económicos y sociales de ese estado de cosas, propiciado por el resultado de guerras como la de Sucesión o la de la Cuádruple Alianza<sup>398</sup>. A ese respecto sus disposiciones testamentarias, minuciosamente analizadas en el trabajo de Garmendia Arruebarrena, al igual que las actividades militares y económicas de uno de sus deudos, su hermano Agustín de Leiza y Latijera, en las colonias americanas, al filo del año 1734, revirtieron a Andoain considerables beneficios. Por ejemplo a través de mandas piadosas o de donativos para la propia construcción de la actual iglesia de San Martín, o de instituciones dedicadas a la enseñanza como una cátedra de Latinidad; detalles que, en conjunto, arrojan muy pocas dudas sobre cuál fue el papel de muchos vascos, y unos cuantos andoainarras, en el escenario histórico posterior a las guerras con las que se abre este Siglo de las Luces<sup>399</sup>.

396 A.M.A., E, 2, II, 234 H 9, carta de 14 de diciembre de 1762.

397 Sobre esto véase GINZBURG, C.: *El queso y los gusanos*, Muchnik, Barcelona, 1994, pp. 9-17. Acerca de cómo vascos y navarros utilizan ese entramado imperial, puede verse un completo estudio en IMIZCOZ, J. M. (dir.): *Redes familiares y patronazgo. Aproximación al entramado social del País Vasco y Navarra en el Antiguo Régimen (siglos XV-XIX)*, UPV-EHU, Bilbao, 2001. Sobre el contrabando en la zona de Andoain, concretamente el de tabaco, fuertemente ligado al emplazamiento geográfico de la villa, véase APARICIO ROSILLO, S.: "El contrabando de tabaco en Andoain durante los siglos XVIII y XIX", *Leyçaur*, 8, 2004, pp. 93-150.

398 Sobre la proyección de plazas como la de Cádiz en las redes de comercio internacional véase CIPOLLA, C. M.: *La odisea de la plata española: conquistadores, piratas y mercaderes*, Crítica, Barcelona, 1999. También MARTÍNEZ SHAW, C.; ALFONSO MOLA, M. (dirs.): *España en el comercio marítimo internacional (siglos XVII-XIX): quince estudios*, UNED, Madrid, 2009.

399 Véase GARMENDIA ARRUEBARRENA, J.: "Sebastián de Leiza y Latijera", *Leyçaur*, 3, 1994, pp. 9-38, pp. 9-38 y en ese mismo número 3 de la revista "Leyçaur" "Anexo documental", pp. 360-363, donde se recoge la actividad comercial y militar de Agustín de Leiza y Latijera en América en la primera mitad del siglo XVIII. Asimismo puede resultar de interés ALIJOSTES OLASAGASTI, G.-GARMENDIA AYESTARAN, A.: "Andoaingo benefizentzia eta ongizate sozialaren bilakaera historikoa, XVII. mendearen bukaeratik XX. mendeko 30. hamarkadararte", *Leyçaur*, 4, 1996, pp. 154-165, donde se estudian minuciosamente los legados dejados tanto por Sebastián como por su hermano Agustín.

La figura de Agustín de Leiza y sus inversiones filantrópicas en Andoain, como la construcción de la nueva iglesia de San Martín en 1759, han recibido una notable atención, dedicándose una monografía entera firmada por diversos autores. Véase VV. AA.: *Agustín de Leiza "... el bienhechor indiano"*. Ayuntamiento de Andoain/Andoaingo Udala, 1994.

jarduera militar eta ekonomikoak Andoainentzat guztiz onuragarriak izan ziren, gaur egungo San Martin parrokia eraikitzeo dohaintza zein eskaintza elizazaleen bidez, esate baterako. Horrelako adibideek balio dute irudikatzeo Gipuzkoako euskaldun askoren papera, andoaindarrak barru, zein izan zen, Argien Mendeko gerren bitarteko agertoki historikoan<sup>399</sup>. Eliza berria eraikitzeo berme eta kaudal gisa erabilitako diruen eta Madrileko inperioaren mendeko Leyza bezalako pertsonaien interes bilbadura politiko-ekonomiko-militarraren arteko harremana (izan Madriletik bertatik izan Cadiztik) argia da, ikus daitekeenez Andoaingo Udal Artxibategian gordeta dauden udal-aktetako ohararazpen askotan.

Lagin gisa, esaterako, aipatu daiteke Mathias Landabururen eskutitza, zeinaren bidez, Zazpi Urteetako Gerra oraindik bukatu gabe, Andoainek berri esanguratsuak jaso zituen elizaren eraikitze-lanetarako diru-hornidurez —1762ko otsailaren 17ko udalbatzako parrokiako kanpandegi zeharreko ohiko bileran—. Eskutitzean, Landaburuk, Cadizen egoitza zuen merkataria euskaldun ospetsuenetakoak<sup>400</sup>, zioen berak bakarrik jarriko zituela 128 laurdeneko 21.000 peso, Agustin Leyzak utzitako 45.000 milari batuta falta zen guztia osatzen zutenak eliza berria eraikitzeo. 21.000 peso horiek une horretan gordeta zituen Cadizko kontratazio-etxe entzute-tsuan. Erakunde horri esker, Mathias Landabururen laguntzaz —esaten zuen eskutitzak— posible zen Andoainek, egoki ikusten zen lehenengo aukeran, kordoizko doloietan kopuru osoa jasotzea. Jardunbide horregatik, gainera, hiribilduak bakarrik ordaindu beharko zituen ehunetik hiru kuartillo (errealaren laurdena) gastuengatik<sup>401</sup>. Are gehiago, Landaburuk berak proposatu zuen Andoainek berak diru hori —21.000 pesoak— zuzenago eta seguruago eskuratzeko —kuartillo kopuru bera mantenduz, dena den, komisio gisa— Donostiako portuan Landaburuk berak kontsignaturik zituenetik ateratzea, Juan Nicolas Guillisastiren eskuetan egongo zirenak (edo dagoeneko zeudenak) Caracasetik ekarriak *San Francisco Xavier* ontzian<sup>402</sup>.

Parrokia berrirako finantzazioa (Amerikar kolonietatik bidalita) urte batzuetan zehar luzatu zen. 1766ko azaroaren 30eko udalbatzan zenbait eskutitz irakurri ziren, Cadizko kontratazio-etxeo priorearenak eta kontsulenenak, Agustin Leyzaren azken borondateak betetzeko Ameriketako funtsei zegozkienak<sup>403</sup>. Lehenengo eskutitzean jakinarazten zen Joseph Gainzak, Agustin Leyzaren bilobak, 27.764

399 Ikus GARMENDIA ARRUEBARRENA, J.: "Sebastián de Leiza y Latijera", *Leyçaur*, 3, 1994, 9-38 orr., eta aldizkariko zenbaki berean "Anexo documental", 360-363 orr., bertan Agustin Leiza eta Latijeraren jarduera militar eta merkataritzakoa jasotzen da, Ameriketako XVIII. mendearen lehenengo erdian. Aldi berean, interesgarria da ALIJOSTES OLASAGASTI, G.-GARMENDIA AYESTARAN, A.: "Andoaingo benefizentzia eta ongizate sozialaren bilakaera historikoa, XVII. mendearen bukaeratik XX. mendeko 30. hamarkadararte", *Leyçaur*, 4, 1996, 154-165 orr., bertan oso zehatz aztertzen dira Sebastianek eta haren anaia Agustinek utzitako legatuak.

Agustin Leizaren figurak eta inbertsio filantropikoak herrian atentzioa eman diete zenbait autoreri monografla batean. Ikus VV. AA.: *Agustín de Leyza "... el bienhechor indiano"*. Andoaingo Udala, 1994.

400 A.U.A. A 1 L H 38 bis, 200 atz. 201 aurea. Cadizko euskaldunak, ikus GARMENDIA ARRUEBARRENA, J.: *Cádiz, los vascos y la carrera de Indias*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.

401 A.U.A. A 1 L H 38 bis, orrialdeak: 201 aurrealdea-201 atzealdea.

402 ÍDEM, orrialdea 201 atzealdea.

403 ÍDEM, orrialdeak: 279 atzealdea-280 aurrealdea.



La relación entre esos caudales que servían para construir la nueva parroquia y ese entramado político, militar y económico dependiente, como origen y garante de la estructura imperial controlada por familias como los Leyza desde Madrid o Cádiz, se hace patente, desde luego, en numerosas anotaciones consignadas en los libros de actas municipales conservados en el Archivo Municipal de Andoain.

Así, por ejemplo, con la Guerra de los Siete Años todavía en marcha, Andoain recibió noticias importantes a ese respecto a través de su Ayuntamiento reunido el 7 de febrero de 1762 en el campanario viejo de esa parroquia. Dichas noticias venían en una carta escrita por Mathias de Landaburu, uno más de los muchos comerciantes vascos afincados en Cádiz<sup>400</sup>. En esa carta Landaburu decía que sólo de él dependía recoger 21.000 pesos de a 128 cuartos, que eran el resto de los 45.000 que Agustín de Leiza había dejado para construir la nueva iglesia. Dichos 21.000 pesos estaban en ese mismo momento guardados en la celebre Casa de Contratación de Cádiz. Gracias a esa institución, y con la ayuda que del propio Mathías de Landaburu se podía conseguir, decía esa carta que Andoain recibiría esa cantidad en doblones “de cordoncillo” a la primera ocasión que hubiera. Además, por dicho servicio la villa sólo tenía que pagar una comisión de tres cuartillos por cien<sup>401</sup>. Aún más, Landaburu proponía que Andoain se cobrase los 21.000 pesos de modo más directo y seguro —pero al mismo coste de tres cuartillos por cien— sacándolos de los que él, Landaburu, tenía consignados para el puerto de San Sebastián a manos de Juan Nicolás de Guilisasti y que debían llegar —o habían llegado ya al puerto guipuzcoano— remitidos desde Caracas en el navío *San Francisco Xavier*<sup>402</sup>.

La financiación para la nueva parroquia, remitida desde las colonias americanas, se prolongó durante bastantes años. Así, en la sesión del Ayuntamiento de 30 de noviembre de 1766, se leyeron varias cartas que mandaban a Andoain el prior y los cónsules de la Casa de Contratación de Cádiz, relativas al envío de fondos desde América para cumplir con esas últimas voluntades de Agustín de Leiza<sup>403</sup>. La primera de ellas comunicaba que Joseph de Gainza, sobrino de Agustín de Leiza, remitía 27.764 pesos fuertes de las cantidades pertenecientes a su tío que estaban en su poder aún. Esa cantidad llegaría a la Península desde el puerto de Buenos Aires, a bordo del navío *Príncipe San Lorenzo* bajo mando de Fernando Cortés que, se esperaba, llegase a Buenos Aires de un momento a otro tras experimentar algunas dificultades que lo habrían llevado al puerto de Río de Janeiro<sup>404</sup>. Informaba también el Consulado de Cádiz de que llegarían otros 13.882 pesos a bordo del navío de guerra *Magnánimo*, que iría directo al puerto gallego del Ferrol. El Consulado sugería a Andoain que, para evitar gastos, trayendo desde El Ferrol a Cádiz esas cantidades para registrarlas debidamente, la villa se pusiese de acuerdo otra vez con Mathias de Landaburu, para que les remitiese esa cantidad desde Galicia. Una operación ésta

---

400 A.M.A., A, 1, LH 38 bis, folios 200 vuelto y 201 recto. Sobre los vascos en Cádiz, véase GARMENDIA ARRUEBARRENA, J.: *Cádiz, los vascos y la carrera de Indias*, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1989.

401 A.M.A., A, 1, LH 38 bis, folios 201 recto-201 vuelto.

402 ÍDEM, folio 201 vuelto.

403 ÍDEM, folios 279 vuelto-280 recto.

404 A.M.A., A, 1, LH 38 bis, folios 279 vuelto-280 recto.



peso gogor igortzen zituela, bere osabarenak zirenak eta orduan bilobak zituenak. Diru horrek penintsulara iritsi behar zuen Buenos Aireseko portutik Fernando Cortesen agindutara zegoen *Príncipe San Lorenzo* itsasontzian (lehenago Rio de Janeiro eskala egin ondoren bidaiako zenbait zailtasun zirela eta<sup>404</sup>). Cadizko kontsulatu-etxeak ere ohartarazten zuen beste 13.882 peso iritsiko zirela Ferroleko portura, *Magnanimo* gerraontzian, eta kontsulatu-etxeak iradokitzen zuen eskutitzean, berriz ere, merkeago aterako zela adostea Mathias Landabururekin zuzenean Galiziatik Euskal Herrira dirua ekartzea, igaro beharrik izan gabe Cadizetik kopuruak erregistratzeko<sup>405</sup>.

## 7.2. Argien mendeko azken txinpartak Andoainean (1700-1794)

Gipuzkoako probintzia, eta harekin batera Andoain, ez zen Ilustraziotik kanpo gelditu<sup>406</sup>. Jean Sarrailhek berak zera azpimarratzen zuen Espainiako Argien Mendeari buruzko bere obra nagusian: Peñafloidako konde azkoitiarrak abiarazitako Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte klase horretako lehenengoa izan zela Bidasoko mugatik hegoaldera eta eredugarri izan zela antzeko beste elkarte ilustratu batzuentzat, izan Inperio espainiarreko hiriburukoa, Matritensea esate baterako, edo izan beste edozein hiritakoa<sup>407</sup>. Edozein kasutan, beharrezkoa da —derrigorrezkoa ez esatearren— orokorretik zehatzera jaitea (tokian tokikora, esan genezake) jakin ahal izateko prozesu horrek Andoaini modu batera edo bestera eragin ote zion. Are gehiago, kontuan hartuta, noski, hiribildu horretako semeen artean aita Larramendi dagoela. Izan zen haren garrantzia hain handia da ezen, nahiz eta bere obretako batzuetan kontserbadurismoa presente egon, kontaktu daiteke bere figura, gehiago bere eginengatik bere iritzi pertsonalengatik baino, ilustratu kopuru handian (Peñafloidako kondearekin, Altuna zaldunarekin eta beste askorekin batera), zeinak loratu ziren Gipuzkoako Argien Mendean, sortutako obra idatzietako batzuetan, eta bestelako obra motetan ere, halako lorratz handia utziz ilustrazioaren abantzamenduan latitude hauetan<sup>408</sup>. Ideia ilustratuak Andoainera iritsi zireneko lehenengo zantzu argiaren berri Peñafloidako kondeak berak ematen digu, 1765eko urtarrilaren 6an hiribilduko Udalari eskutitz bat bidalita, zeinean gatzigatzen baitzuen bere eta bere kolaboratzaileen ekimenezko elkarte baten sorreraz Gipuzkoako lurraldean: elkarte edo

404 A.U.A. A 1 L H 38 bis, 279 atzealdea-280 aurrealdea.

405 ÍDEM, 280 orrialdea, atzealdea.

406 Ilustrazioari buruzko bibliografia laburra eskaintzea ez da hain erreza, ikerketa asko eta asko egin baitira Europa mailan. Oso erabilgarria da, FERRONE, V.-ROCHE D. (ed.): *Diccionario histórico de la Ilustración*, Alianza Editorial, Madril, 1998, zeinean orienbabide bibliografiko ona egoteaz gain mugimendu intelektual horren gai nagusiei buruzko lan zehatzak dauden zenbait autoreren Ferrone y Rocheren zuzendaritzapean.

407 SARRAILH, J.: *La España Ilustrada de la segunda mitad del siglo XVIII*, F. C. E., Madril, 1992, 236-237 orr.

408 Prozesu horri buruz, ilustrazio osoari buruz gertatzen denaren antzera, bibliografia laburra eskaintzea ez da hain erreza, ikerketa asko eta asko egin baitira Europa mailan gauza orokor zein zehatzei buruz. Singtesi on bat in ASTIGARRAGA, J.: *Los ilustrados vascos. Ideas, instituciones y reformas económicas en España*, Crítica, Bartzelona, 2003. Obra horretan gainera, 53 orrian, Larramendi aurkezten da ilustrazio euskaldunaren aintzindari gisa, zeina gauza zen, haren heriotzaren ondoren 1766an, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen.

que, como vemos, es un ejemplo perfecto del beneficio obtenido —en forma de capitales, de inversiones públicas...— por una comunidad como Andoain de su participación y aportación a un complejo —y poderoso— entramado militar que, en el siglo XVIII, dominaba buena parte del Mundo y sus recursos<sup>405</sup>.

## 7.2. Los compases finales del siglo de las luces en Andoain (1700-1794)

El siglo XVIII se ha calificado, en términos generales, como un siglo de avance intelectual, científico... como ya hemos visto al inicio de este capítulo. La provincia de Gipuzkoa de la que forma parte indudable Andoain no es, precisamente, ajena a ese movimiento intelectual<sup>406</sup>. De hecho, Jean Sarrailh ya señalaba en su obra fundamental sobre ese siglo de las Luces en España que la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, puesta en marcha por el azcoitiarra conde de Peñafiorida, fue la primera existente al sur de la frontera del Bidasoa y la que sirvió de modelo para otras sociedades ilustradas similares como la Matritense, aparecida en la capital del imperio hispánico, y otras ciudades españolas<sup>407</sup>. A ese respecto, una vez más, es preciso —incluso necesario— descender de lo general a lo local para descubrir si concretamente a la comunidad de Andoain le afectó de igual modo ese proceso, mucho más teniendo en cuenta que esta villa alojó entre sus vecinos, durante ese siglo XVIII, al padre Larramendi. Alguien al que, pese al notable conservadurismo que se ha achacado a algunas de sus obras, se puede contar, por su práctica más que por sus convicciones personales, entre el número de ilustrados que eclosionan, como el conde de Peñafiorida, el caballero Altuna y muchos otros, en los años centrales de ese Siglo de las Luces guipuzcoano, y dejan —como es obvio en el caso de algunas de las obras del sacerdote andoaindarra— una huella notable, y por escrito, en ese avance de la Ilustración en esas latitudes<sup>408</sup>. La primera noticia clara de la llegada de esas ideas ilustradas a Andoain nos la proporciona precisamente el propio conde de Peñafiorida, cuando el 6 de enero de 1765 remitía al Ayuntamiento de la villa una carta en la que informaba a esa institución del plan aprobado, a instancias suyas y de sus colaboradores, de la creación en territorio guipuzcoano de la que llama “una Sociedad ò Academia de Agricultura, Ciencias, y Artes utiles, y Comercio” y de la dotación de premios en ese sentido, cuya publicación en Andoain pedía el conde se hiciera al igual que en otras villas<sup>409</sup>.

405 A.M.A., A, 1, LH 38 bis, folio 280 vuelto.

406 Resulta difícil dar una bibliografía sucinta de lo que supone un capítulo de la Historia europea tan investigado como lo es el caso de la Ilustración. A ese respecto resulta de utilidad, sin embargo, FERRONE, V.; ROCHE D. (eds.): *Diccionario histórico de la Ilustración*, Alianza Editorial, Madrid, 1998, en el que se recoge una buena orientación bibliográfica sobre el tema y un exhaustivo repaso a los principales temas relacionados con ese movimiento intelectual a manos de numerosos especialistas reunidos en este volumen bajo la dirección de Ferrone y Roche.

407 SARRAILH, J.: *La España ilustrada de la segunda mitad del siglo XVIII*, F. C. E., Madrid, 1992, pp. 236-237.

408 Sobre ese proceso, tal y como ocurre con la bibliografía sobre el movimiento general de la Ilustración en toda Europa, una bibliografía exhaustiva es casi imposible dado el número de estudios generales y parciales sobre estas cuestiones. Se puede encontrar una buena síntesis en ASTIGARRAGA, J.: *Los ilustrados vascos. Ideas, instituciones y reformas económicas en España*, Crítica, Barcelona, 2003. Obra en la que, además, se señala, en su página 53, a Larramendi como un precursor, en cierto modo, del movimiento ilustrado vasco que se concreta tras su muerte en 1766 en la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

409 A.M.A., E.2.II, 234 H 9, carta de 6 de enero de 1765.

Akademia bat, Nekazaritzakoa, Zientziak, Arte Erabilgarriak eta Merkataritzakoa, sari-keten dotazio batzuekin. Kondeak eskatzen zion Andoaini argitaratzeko haren berri, beste hiribildu batzuetan egin zen moduan<sup>409</sup>.

### 7.2.1. Arrazoia eta fedea XVIII. mendeko Andoainen. Mende hasieratik Aita Larramendiren urte emankorretara (1700-1770)

Duela gutxi zendutako Antxon Agirre Sorondoren lan ugarietako bat gidatzat hartuz (Andoaingo baselizez buruzkoa hain zuzen), XVI. mendetik XIX.era doana hain zuzen, zeraz konturatuko gara, XVIII. mendeko Andoaini dagokionez, ideia ilustratu berriek, ondorio gisa gizartearen laizizazio bat ekarri zutenek (edo Frantziako kasuan bezala kristau-idearioa ezabatzea, Frantzia Iraultzailean), ez zutela talkarik egin Andoaingo tradizio erlijioso tradizionalen, zeina baitzen nagusi aspalditik erkidego horretan. Hain zuzen, XVIII. mendean bertan altxatu zen gutxienez erakin erlijioso handi bat Andoainen, 1759tik 1770era egin baitzen hiribilduko parrokia berria, hots San Martingoa (beraz, zaharra —1554— sagararuta zegoen santu berberari eskainia), zeinaren finantzazio-prozesuaz aurreko epigrafean jardun dugun luze eta zabal<sup>410</sup>. Agirre Sorondok aipatzen du ondoko beste tenplu bat, XVIII. mendekoa ere, itxuraz, haren funtzioengatik gehiago zegoena erlijiotasun barroko eta ilustrazio munduaren arteko erdibide batean; Irigoyen Azpikoa etxeaz ari gara, Andoaingo irteeran Urnieta eta Donostiarantz, Juan Legarrak eraikia eskola edo haztetxe gisa haur txiroentzat, Bergarako Errege Mintegiaren antza handikoa, zeina, jakina, sortu baitzuen Peñafloridaren elkarteak<sup>411</sup>.

Antxon Agirre Sorondoren lanean oinarriturik baieztatu dezakegu ezen, Argien mendearen aurretik, bitartean eta ondoren, Andoainek jarduera erlijioso jarraitu bat izan zuela, eta are deboziozko gertaera gogoangarrien eszenatokia izan zela, gaur egungo mentalitatearekin sinesgaitzak iruditzen zaizkigunak, hala nola Elizaren babes eskubideaz baliatzea, hots, elizaren babespean jartzea ihes egiteko jurisdikzio zibilaren zigorretik, gutxienez aldi baterako (eliz jurisdikzioa zibilarekin adostu bitartean zigortua ematea). Horrelako gertaerak gerretan maiztu ziren; batez ere Ondorengotza Gerran. 1712an, apaiz baten ustezko hiltzailea Andoaingo Kristo Santuaren baselizako hormatik igota barruan babestu zen; eta, 1724an, Aliantza Laukoitzaren Gerran, Kantabria batailoiko bi desertorek, harrapatu ondoren preso zeramatatanean Hondarribira, ihes egin, eta toki berean bilatu zuten aterpe<sup>412</sup>.

Andoaingo XVIII. mendeko sinesmenei buruzko beste lan batzuetan begiratzuz gero, laster konturatuko gara hiribilduko erlijiotasun-pauta hori Europa

409 A.U.A., E.2.II, 234 H 9, 1765ko urtarrilaren 6aren gutuna.

410 AGUIRRE SORONDO, A.: "Las ermitas de Andoain", *Leyçaur*, 2, 1992, 65-131 orr. Ikus baita ere IBAÑEZ ETXEBERRIA, A.-RODRÍGUEZ PÉREZ, A. I.-GARCÍA DEL SER, M. V.-HERNÁNDEZ DEL CAÑO, M. J.: "Actitudes de la comunidad de Andoain ante la Muerte en los siglos XVII y XVIII", *Leyçaur*, 6, 2000, 206-212 orr.

411 AGUIRRE SORONDO, A.: *op. cit.*, 73 or. Juan Legarraren haur txiroentzako haztetxe honi buruz, ikus baita ere ALIJOSTES OLASAGASTI, G.-GARMENDIA AYESTARAN, A.: *op. cit.*, 150-154 orr.

412 AGUIRRE SORONDO, A.: *op. cit.*, 77-78 orr.

### 7.2.1. Razón y fe en el Andoain del siglo XVIII. De los comienzos del siglo a los años productivos del padre Larramendi (1700-1770)

Si nos guiamos por uno de los innumerables trabajos del antropólogo guipuzcoano Antxon Aguirre Sorondo, concretamente el dedicado a las ermitas de Andoain —que abarca los siglos XVI al XIX— descubriremos que, por lo que respecta al Andoain del siglo XVIII, las nuevas ideas ilustradas que desembocaron en la laicización —cuando no en la descristianización radical, como ocurrió en la Francia revolucionaria— no entraron, aparentemente al menos, en ningún conflicto con la tradición religiosa del catolicismo imperante en esa comunidad desde hacía siglos. En efecto, de hecho el siglo XVIII vio en Andoain la aparición de al menos un gran edificio con fines religiosos. Se trata, concretamente, de la construcción, entre 1759 y 1770, de la nueva parroquia de la villa, dedicada a San Martín —como la anterior, datada desde 1350— y de cuya financiación con el oro de las colonias americanas acabamos de hablar<sup>410</sup>. Junto a ese templo, ese mismo trabajo de Aguirre Sorondo, alude a la presencia de otro edificio construido en ese siglo XVIII que, por sus funciones, parece estar ya más bien a medio camino entre la religiosidad barroca y el mundo de la Ilustración. Se trata de la casa Irigoyen Azpikoa, emplazada a la salida de Andoain con dirección a Urnieta y San Sebastián, construida por Juan de Legarra para servir como escuela o seminario de niños pobres en un proyecto que recuerda mucho al Seminario Patriótico Bascongado de Bergara puesto en marcha, precisamente, por la ilustrada Sociedad Bascongada del conde de Peñaflores<sup>411</sup>.

Por lo demás este trabajo de Antxon Aguirre Sorondo sólo nos permite deducir que Andoain, durante y después de ese Siglo de las Luces, mantuvo una notable actividad religiosa y fue, incluso, escenario de curiosas estampas de devoción que ahora nos parecen inverosímiles, como es el caso de “acogerse a sagrado”. Es decir, ponerse bajo la protección de la Iglesia para evitar que la jurisdicción civil pueda ejecutarse sobre el reo que, de ese modo, escapa de su rigor. Al menos de momento y hasta que la jurisdicción eclesiástica se pone de acuerdo con la civil para devolverlo a los tribunales. Los episodios de esa naturaleza ocurren concretamente durante la Guerra de Sucesión, en 1712, cuando el presunto asesino de un clérigo se refugió en la ermita del Santo Cristo de Andoain, trepando por sus paredes, y pocos años después del fin de la Guerra de la Cuádruple Alianza, en 1724, cuando dos soldados desertores del regimiento Cantabria, capturados y reconducidos a su guarnición de Hondarribia, buscaron ese mismo refugio<sup>412</sup>.

410 AGUIRRE SORONDO, A.: “Las ermitas de Andoain”, *Leyçaur*, 2, 1992, pp. 65-131. Sobre este templo parroquial y su evolución véase también IBAÑEZ ETXEBERRIA, A.; RODRIGUEZ PÉREZ, A. I.; GARCÍA DEL SER, M. V.; HERNÁNDEZ DEL CAÑO, M. J.: “Actitudes de la comunidad de Andoain ante la muerte en los siglos XVII y XVIII”, *Leyçaur*, 6, 2000, pp. 206-212. Sobre las aportaciones fundamentales de Agustín de Leiza para la construcción de este templo, véase VV. AA.: *Agustín de Leyza...*, *op. cit.*

411 AGUIRRE SORONDO, A.: *op. cit.*, p. 73. Sobre este Seminario para pobres de Juan Legarra, véase también ALIJUSTES OLASAGASTI, G.-GARMENDIA AYESTARAN, A.: *op. cit.*, pp. 150-154.

412 AGUIRRE SORONDO, A.: *op. cit.*, pp. 77-78.



28. irudia. San Martin de Tours elizaren ikuspegia. Iturria: A.U.A., 4950XX01. © Truchuelo.

Ilustración 28. Vista de la iglesia de San Martín de Tours. Fuente: A.M.A., 4950XX01. © Truchuelo.

katoliko guztian gertatzen ari zenaren berdina zela, izan ere, Filosofia ilustraturen garapena eta gizarte aldaketa sozial, ekonomiko eta intelektuala mailaz mailako prozesua izan zen mende osoan kontinentean<sup>413</sup>. Halaxe da, heriotzaren gaineko jarrerak aztertzen baditugu (argitaratuko lanen bitartez) Andoainen, XVII. eta XVIII. mendeetan, ikusiko dugu hiribilduan dena garatzen zela, esate baterako, Frantzia batean bezala, azkenekoari buruz Michel Vovellek egindako lana irakurriz konturatu gaitzkeenez<sup>414</sup>. Beraz, gizarte mota hori dogma katolikoetara lotu zen lurreko bizitzaren iragankortasunez; eta, itxuraz, hil ondoko bizian sinesmen sendoa zuen, eta ahaleginak egiten zituen, lurreko egonaldia bitartean, betiereko bizitzarako prestatzeko, idatzita utziz —testamentu gisa— bakoitzaren fede kristauaren berri ematen zuten idazpuruak. Dokumentuetan Jainkoaren eta Ama Birjinaren deia egiten zen, bizitza batetik bestera igarotzea lortzeko, eginez eginahalak egindako errakuntzak konpontzeko, saiata lurreko arazoan atze-aurreak konponduta uzten (zorrak kitatuz, eta, batez ere bizirik gelditutako senideen artean ondasunak banatuz), hurrengo bizitzara, betikora, igarobide garbia erdiesteko.

Erlijiotasun mota hori ez zen asko aldatu mende guztian zehar; eta, egia esateko, Andoain bezalako herri batean ziur asko sobran zeuden udaletxera 1780ko

413 Horri buruz interesatea izan daiteke: DELUMEAU, J.: *El catolicismo de Lutero a Voltaire*, Labor,artzelona, 1973.

414 Ikus IBAÑEZ ETXEBERRIA, A.-RODRÍGUEZ PÉREZ, A. I.-GARCÍA DEL SER, M. V.-HERNÁNDEZ DEL CAÑO, M. J.: *op. cit.*, 165-244 orr. eta VOVELLE, M.: *Ideologías y mentalidades*, Ariel,artzelona, 1985.

Si consultamos otros trabajos relacionados con el mundo de las creencias en el Andoain del siglo XVIII, pronto descubrimos que esa pauta de religiosidad se mantuvo del mismo modo que en el resto de la Europa católica de esas mismas fechas, también, como Andoain, afectada paulatinamente por el desarrollo de la Filosofía ilustrada y el proceso de cambio social, económico, intelectual que vino aparejado con ella<sup>413</sup>.

Del trabajo colectivo sobre las actitudes ante la muerte en el Andoain de los siglos XVII y XVIII se deduce que en esa comunidad todo se desarrollaba de acuerdo a pautas que podemos encontrar, por ejemplo, en la Francia estudiada por Michel Vovelle<sup>414</sup>. Es decir, nos encontramos con una sociedad que se adhiere a los dogmas católicos sobre la transitoriedad de la vida terrenal, parecía creer ciegamente en la vida ultraterrena y se esforzaba por lograr alcanzarla para vivir eternamente en ella, dejando por escrito —en forma de testamento— todas esas creencias. Documentos en los que se invocaba a Dios y a otras potencias sobrenaturales como la Virgen María, para lograr ese tránsito de una vida a otra, haciendo lo posible para redimir las faltas cometidas, tratando de no dejar cabos sueltos (deudas o repartos de bienes entre los parientes que quedarán vivos, sobre todo), obteniendo así ese paso a la vida sobrenatural considerada como definitiva.

Una clase de religiosidad que no parece alterarse demasiado a lo largo de todo ese siglo XVIII y en la que aparentemente están de más advertencias como la que le llegó al Ayuntamiento el 4 de septiembre de 1780, con un ejemplar de las disposiciones tomadas por la ya muy ilustrada Corte de Madrid prohibiendo que en esa parroquia, como en cualquier otra de todo el reino, hubiese danzas, o se sacasen "Gigantones" durante las procesiones. De hecho, el número de cofradías piadosas aumentó en Andoain en esas fechas con la fundación de la de las Ánimas en 1726 y la del Sagrado Corazón de Jesús poco después. Es más, todo apunta a que Andoain se vio, en principio, poco erosionada por la llegada de nuevas ideas políticas, entre finales de esa centuria y comienzos de la siguiente. Tal y como demuestran otras investigaciones sobre las actitudes ante la muerte en Andoain entre 1805 y 1845, donde la ruptura con la ortodoxia católica sólo hizo su aparición en casos excepcionales, como el del capitán de infantería José María de Charola, muerto en Andoain, tras su jubilación, en el año 1843 y, al parecer, no en demasiados buenos términos con el cumplimiento de los preceptos religiosos establecidos por la Iglesia católica<sup>415</sup>.

413 A ese respecto puede resultar de interés DELUMEAU, J.: *El catolicismo de Lutero a Voltaire*, Labor, Barcelona, 1973.

414 Véase IBAÑEZ ETXEBERRIA, A.; RODRÍGUEZ PÉREZ, A. I.; GARCÍA DEL SER, M. V.; HERNÁNDEZ DEL CAÑO, M. J.: *op. cit.*, pp. 165-244. VOVELLE, M.: *Ideologías y mentalidades*, Ariel, Barcelona, 1985.

415 Véase, LEMA PUEYO, J. A.; MURO ARRIET, K.; VÁZQUEZ ESCUDERO, E.: "Andoaindarrak eta heriotza: hilkortasuna, jokaerak eta pentsamoldeak (1805-1845)", *Leyçaur*, 3, 1994, pp. 89-90. A ese respecto puede resultar de interés cotejar este trabajo con ALIJOSTES OLASAGASTI, G.; GARMENDIA AYESTARAN, A.: *op. cit.*, pp. 150-154, donde se observa la donación testamentaria hecha en favor de pobres, cumpliendo de ese modo con uno de los pilares de la doctrina católica para obtener la salvación eterna. En este caso a través de la limosna y la caridad.

Sobre las cofradías piadosas de Andoain y su crecimiento en el siglo XVIII véase RODRÍGUEZ PÉREZ, I.: "Las cofradías en Andoain", *Leyçaur*, 7, 2002, pp. 45-146.

Sobre la prohibición de danzas en las iglesias y los "Gigantones" en las procesiones, consúltase A.M.A., E, 2, II, 234 H 9, carta de 4 de septiembre de 1780.

irailaren 4an iritsi ziren hau bezalako oharkizunak: dantzak egiteko eta erraldoiak ateratzeko prozesioetan debekua jasotzen zuen Madriliko gorte ordurako guztiz ilustratuarenak. Kofradia elizkoiaren kopurua gehiagotu zen Andoainean, garai horretan birsortu baitzen Arimen kofradia (1726) eta Jesusen Bihotz Sakratuarena pixka bat geroago. Badirudi ideia politiko eta ideologiko berriek ez zutela Andoain askorik aztoratu mende osoan zehar, ezta hurrengoaren hasieran ere; izan ere, heriotzaren inguruko jarrerari buruzko azterlan batzuek, zehazki 1805etik 1845era arteko epeari buruzkoek, frogatzen dute ortodoxia katolikoaren urraketa kasuak bakanak izan zirela, Jose Maria Charola infanteriako kapitainarena bat izan zelarik, Andoainen hil baitzen, erretiroa ondoren, 1843an; eta heriotzako orduan eliza katolikoak arautzen zituen betekizunak ez zituen gorde, nonbait<sup>415</sup>.

Giro horretan, hain zuzen, zeinean nahastu ziren ilustrazioaren lehenengo printzak fede katoliko zorrotz batekin eta gertaera politiko garrantzitsuekin Europa mailan, hala nola Ondorengotza Gerra eta Aliantza Laukoitzarena, agertu zen Andoaingo ilustrazioaren pertsonaia nagusia, hots, Manuel Garagorri, jesuiten abitua jantzi ondoren Ondorengotza Gerra bitartean, 1708. urtean, bere amaren abizenagatik izango dena handik aurrera ezagun: Larramendi<sup>416</sup>. Aita Larramendiren arbasoei buruzko lanean Enrike Larrartek zehazten duenez, haren biografia nahiko ongi ezagutzen dugu, besteak beste, José Ignacio Tellechearen lanari esker. Halere, Larrartek onartzen du andoaindarraren giro soziala, zeinetatik sortu baitzen halako figura garrantzitsu bat gure Ilustrazioan, gutxiago ezagutzen dugula. Gutxienez horrela zen Larrartek berak *Leyçaur* aldizkariko 6. alean argitaratutako lanera arte<sup>417</sup>. Artikulu interesgarri hori irakurritakoan ateratzen den ondorio nagusia zera da: aita Larramendiren merituak, bizitzakoak zein intelektualak (esate baterako: *Diccionario Trilingue del Castellano, Bascuence y Latin*) are handiagoak direla, kontuan hartuz gero haren abiapuntu sozial korapilatsu eta zaila<sup>418</sup>.

415 Ikus, LEMA PUEYO, J. A.-MURO ARRIET, K.-VÁZQUEZ ESCUDERO, E.: "Andoaindarrak eta heriotza: hilkortasuna, jokaerak eta pentsamoldeak (1805-1845)", *Leyçaur*, 3, 1994, 89-90 orr. Interegarria izan daiteke beste lan honekin erkatzea: ALIJOSTES OLASAGASTI, G.-GARMENDIA AYESTARAN, A.: *op. cit.*, 150-154 orr., bertan ikusten da testamentu bidezko dohaintza pobrentzat, betiko salbamendua lortzeko tresna gisa erabilia, eliza kalotikoaren eskakizunak betez.

Andoaingo kofradia elizkoiez eta hazien hazkuntzaz, XVIII. mendean, ikus RODRÍGUEZ PÉREZ, I.: "Las cofradías en Andoain", *Leyçaur*, 7, 2002, or. 45-146.

Dantzen eta erraldioen debekuez elizan eta prozesioetan Kontsultatu A.U.A., E, 2, II, 234 H 9, 1780 irailaren 4ko gutuna.

416 Aita Larramendiri buruzko hauek eta bestelako xehetasunak aztertzeko, ikusi TELLECHEA IDIGORAS, J. I. (ed.): *Manuel de Larramendi, S. J. Autobiografía y otros escritos*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S. A. RSBAP eta Donostiako Aurrezki Kutxa, Donostia, 1973. Erljio ideien eta Ilustrazioaren berrikuntzen arteko bizikidetzaz (lehenengoak ahultzten eta bigarrenak indartzen) XVIII. mendeko Espainian Javier Fernández Sebastiánen oharrak interesgarriak dira, Ilustrazioari buruzko liburu kolektiboan Ferrone eta Roche irakasleen zuzendaritzapean egina. Ikus FERRONE, V.-ROCHE D. (eds.): *op. cit.*, 341-343 orr.

417 LARRARTE ARREGUI, E.: "Aita Manuel Larramendiren sendia. Dokumentu batzuk", *Leyçaur*, 6, 2000, 43-44 orr.

418 *IBÍDEM*, 60-72. or.



